

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 2552

*AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eska dezaten deialdia egin eta horien finantzaketa arautzen duena.*

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du. Dekretu horren 8. artikulua arabera, behar bezala baimendutako ikastetxeek heziketa-zikloak modu partzialean eskaini ahalko dituzte pertsona helduentzat bakarrik. Eskaintza horretan heziketa-zikloaren lanbide-modulu guztiak eskaini ahal izango dira eta ikasleek lanbide-moduluka egin ahalko dute matrikula, aipaturiko Dekretuaren 29. artikuluan adierazten den bezala.

Halaber, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean ematea arautzen duen 2010eko martxoaren 22ko Aginduaren 7. artikulua arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailak eskaintza hau egiteko egoki deritzon deialdiak egin ahal izango ditu, eta ikasturteko gutxienez deialdi bat egin beharko du. Ikastetxe pribatuentzako deialdien kasuan, eskolak emateko baldintzez gain, dagokion finantzaketa lortzeko baldintzak ere arautuko dira.

Hori dela eta, agindu honen bidez, alde batetik itunpeko ikastetxe pribatuei 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eska dezaten dei egin nahi zaie; eta bestetik, ikasturte horretarako baimendu den irakaskuntzaren finantzaketa lortzeko baldintzak ezarri nahi dira.

Ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

OINARRI KOMUNAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea Lanbide Heziketa irakasten duten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egitea da honakoa eska dezaten:

a) 2014-2015 ikasturtean heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2010eko martxoaren 22an emandako Aginduari, Lanbide Heziketako zikloak eskaintza partzialean irakastea arautzen duenari jarraituz.

b) 2014-2015 ikasturtean irakaskuntza hori emateko diru-laguntza, agindu honetan ezarritako baldintzen arabera.

2. artikulua.– Hartzaileak.

2014-2015 ikasturtean eskaintza partzialeko modalitatean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak irakasteko baimena eta, hala badagokio, diru-laguntza eskatu ahal izango dute Lanbide Hezi-

ketako heziketa-zikloak irakasteko ofizialki baimenduta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuek, baldin eta Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren bidez araututa badaude.

3. artikulua.– Eskaeren aurkezpena modu elektronikoa egitea.

1.– Baliabide elektronikoak erabili behar izango dituzte erakunde interesdunek eskaerak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak egiteko.

2.– Izapidetze elektronikoa arautu egiten dute otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, eta Informatika eta Teknologiako zuzendariak otsailaren 9an eman zuen Ebazpenak; ebazpen horren bidez, Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartu zen.

3.– Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak zelan egin jakiteko eta ereduak eskuratzeko, jo helbide elektronikoa honetara: [https://www.euskadi.net/diru\\_laguntza/2014/espar/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.net/diru_laguntza/2014/espar/y22-izapide/eu)

4.– Eskabidea bide elektronikoz egin eta gero, helbide honetan egingo dira gainerako izapideak: <https://euskadi.net/nirekudeaketak>

5.– Eskabideak bide elektronikoz aurkeztu egin beharko dira euskadi.net egoitza elektronikoa [https://www.euskadi.net/diru\\_laguntza/2014/espar/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.net/diru_laguntza/2014/espar/y22-izapide/eu)

6.– Eskabidearekin batera ondoko derrigorrezko dokumentazioa, 2014-2015 ikasturteari dagoen datuekin, aurkeztu behar da:

a) Laburpen-fitxa, adierazitako betebeharrak egiaztatzen dituzten erantzukizunpekoekin eta ikasturtean garatuko den moduluen eskaintzaren deskribapenarekin. Bertan, oinarritzko argibideak adieraziko dira. «Laburpen-fitxa» inprimaki normalizatuan ezarritako eskemaren arabera egingo da. Inprimaki hau eskuratzeko, jo euskadi.net helbide elektronikora.

Diru-laguntza ere eskatuz gero, aldi berean, irakasteko baimena eskatu beharko da, «Laburpen-fitxa» ereduko bi laukiak beteta.

b) Honakoa adieraziko duen justifikazio-memoria: ikastetxeak eragina duen esparruko ekoizpen-sistemaren eta, eskaintza zein ikasleri zuzenduta dagoen ikasle horien beharretara nola egokitzen den, eskaintza horrek nola osatzen duen dagoeneko esparruan dagoen eskaintza edota esparru bereko beste ikastetxe batzuek aurkeztu dituzten eskaintzak eta, era berean, eskaintza partzalean eman nahi den zikloaren ituna desagertu den, plangintza-arrazoiengatik edota gutxieneko ikasle kopurua ez izateagatik (I. eranskina).

4. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikulua indarrez, eskaerak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, erakunde interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean hutsegitea zuzendu dezan edo ezarritako dokumentuak aurkez ditzan; adierazirik, hori beteko ez balu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, lege beraren 42. artikuluan jasotako baldintzen arabera eman beharko den aurretiazko ebazpenaren ondoren.

## 5. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Baimenaren eta, hala badagokio, diru-laguntzaren eskaera berariaz sortutako ebaluazio-batzorde batek balioetsiko du. Batzordea honako hauek osatuko dute:

- Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendariaren bi teknikari; bata batzordeburuaren egitekoak beteko dituen eta bestea idazkari-lanetan arituko dena. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatuko ditu.
- Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari bana. Lanbide Heziketako Sailburuordetzak izendatuko ditu.

6. artikulua.– Ebazpena, errekursoak, ebatzi eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko era eta publizitate-prozedura.

1.– Heziketa eta Ikaskuntza zuzendariari dagokio, Ebaluazio Batzordearen proposamena aztertu ondoren, agindu honetan arautzen den deialdiaren ebazpena ematea, bai baimenari bai diru-laguntzari dagokionez.

2.– Ebazpena bereizitako ataletan erabakiko da: alde batetik baimena eta bestetik, hala bada, dagokio, diru-laguntza. Ukatutako eskaeren kasuan, ukoaren arrazoia adierazi beharko da.

3.– Hartutako ebazpena banaka jakinaraziko zaie interesdunei, 6 hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bide elektronikoz eta «Nire Kudeaketak» bidez egingo da. Halaber, publizitatearen ondoretarako soilik, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian baita argitaratuko da ere.

Atal honetan adierazitako epea amaituta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek eskaera ukatutzat hartu beharko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan jasotako ondorioetarako.

4.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen eta, haren aurka, gora jotzeko errekursoa aurkez dakioke Lanbide Heziketako sailburuordeari, berori jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

## 7. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Modalitate honetan heziketa-zikloak eskaintza partzalean irakasteko baimendutako eta, hala badagokio, diruz lagundutako heziketa-zikloen eskaintza onartutako baldintzetan gauzatzen dela bermatzeko, Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak horien jarraipena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez.

2.– Ikasturtea amaitzean, ikastetxeek bidalitako txostenean edo beharrezkoa den beste edozein datu nahiz txostenetan oinarrituta, dagokien Etengabeko Ikaskuntzako Lurralde Unitateak ondoko agiriak igorriko dizkio Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari:

– Ikastetxeen zerrenda. Zerrenda horrekin batera, baimendutako eskaintzetan aurreikusitako helburuak zenbateraino bete diren adieraziko da eta, gutxieneko helburuak lortu ez badira, aipatu egingo da espresuki.

– Partaide kopuruari buruzko txosten estatistikoa, heziketa-moduluaren arabera, eskaintza partziala duen ikastetxe bakoitzeko eta partaideek lortutako emaitzak adierazita.

3.– Irakaste-aldian prestakuntza garatzean gorabeherarik egongo balitz heziketa-zikloen eskaintza partziala ematen duten ikastetxeetan, dagokien Ikuskaritzako Lurralde Burutzak txos-

tena igorriko dio Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzari, zuzendaritza horrek behar diren neurriak har ditzan.

#### 8. artikulua.– Datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sorzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi hau bideratzean jasotako datu pertsonalak (parte-hartzaileek horiek erabiltzea eta argitaratzea baimentzen dute) Eskaintza partziala izeneko fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua izango da deialdi honetako diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenaren berri ematea ere. Fitxategi horren arduraduna Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza da Lege horretan adierazitako sarbide-, zuzentze-, ezabatze-, eta aurkatze-eskubi-deak erabiltzeko Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritza baimentzen dute aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna beste erakunde publiko batzuetan egiaztatzeko.

## II. KAPITULUA

### LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOAK ESKAINTZA PARTZIALEAN IRAKASTEKO BAIMENA

#### 9. artikulua.– Baimenaren baldintzak eta ondorioak.

1.– Eskaintza partzialeko modalitatean heziketa-ziklo bat irakasteko baimenerako beharrezko baldintza bakarra izango da heziketa-ziklo hori eskaintza osoko modalitatean irakasteko baimen-duta egotea.

2.– Eskaintza partzialeko modalitate hau irakasteko baimenak berekin ekarriko du irakaskuntza horiek beraiek ikasten dituzten ikasleentzat ondorio akademikoak izatea, ziurtapenaren ondorioetarako, Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2010eko martxoaren 22ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

3.– Eskaintza partzialeko modalitatea irakasteko baimenak berez ez dakar diru-laguntza lortzea.

#### 10. artikulua.– Eskaera prestatzea.

1.– Eskaintza partzialaren proposamena zuzendaritza-taldeak egin behar du, eskaintza partzialeko irakaskuntzan zerikusia duten irakasleek, edo irakasleek eskuordeturiko batzordeak eskaintza horren gainean aditzera emandako datuetan oinarrituta, edota zuzendaritza-taldearen beraren ekimenez.

2.– Klaustroak heziketa-zikloen eskaintza partziala eta ondoriozko jarduerak ezagutu behar ditu eta proiektu horrek ikastetxearen barne-antolakuntzan izan dezakeen ondorioaren erantzukizuna bere gain hartu behar du.

3.– Ordezkaritza Organo Gorenak ere eskaintza ezagutu eta eskabidearekin bat etorri behar du; eta orobat, proiektua egiteko behar diren neurriak hartzeko eta ikastetxearen Urteko Plangintzan sartzeko konpromisoa hartu behar du.

4.– Baimena eskatzen deneko eskaintzak ikastetxearen eraginpeko esparruko ekoizpen-sistemaren beharretara eta helburu dituen ikasleen prestakuntza-beharretara egokitu behar du, eta dagoeneko esparruan dagoen eskaintza edota esparru bereko beste ikastetxe batzuen eskaintza osatuko du. Kontuan izango da eskaintza partzialean eman nahi den zikloaren ituna desagertu izana, plangintza arrazoiengatik edota gutxieneko ikasle kopurua ez izateagatik.

5.– Entitate eskatzaileak bere gain hartu behar du, erabakian kontuan hartutako baldintze-tako eragiten dien edozein zirkunstantzia aldatuz gero, aldaketa hori jakinarazteko konpromisoa. Halaber, Erakunde eskatzaileak eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazi beharko du.

11. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak.

1.– 2014-2015 ikasturterako baimentzen den Lanbide Heziketako heziketa-zikloen eskaintza partziala ikasturte horretarako Ikastetxearen Urteko Planean sartu beharko da.

2.– Ikasketa Burutzak baimendutako eskaintza partziala abian jartzen dela zaindu eta horretarako jarduerak koordinatu beharko ditu. Lan hori Ikasketa Burutzak berak egingo du edo, bestela, berak eskuordetzen duen irakasleak, modalitate horretako prestakuntza-koordinatzailea izango denak. Hala bada, koordinatzaile horrek, aldiro, eskaintzaren eta jardueren garapenari buruzko informazioa emango dio Ikasketa Burutzari, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da gai horrekin zerikusia duten gaiak aztertzen direnean.

3.– Ikastetxeak, antolatzeke duen autonomiaren arabera, koordinatzaileen irakastorduak egokitu ahal izango ditu eskaintza partzialean duten zereginarekin bateragarriak izan daitezen. Egokitzapena irakastorduen kopuruan eta banaketan egingo da. Horretarako, aintzat hartuko dira ikasturte-hasierako zirkularretan azaldutako arauak, dagozkien irakaskuntzetakoak, eta ikastetxearen ordutegi-aukera.

4.– Ikastetxe onuradunek azken txosten bat egingo dute, eta bertan, baimendutako eskaintzan aurreikusitako helburuen garapen-maila eta emaitza partzialen berri emango da. Aipatutako txostena «Azken memoria» inprimaki normalizatuan ezarritako eskemaren arabera egin eta «Nire Kudeaketak» bide elektronikoz bidez bidali egin beharko da. Inprimaki hau eskuratzeko, jo euskadi.net helbide elektronikora. Ikastetxeek txostena 2015ko uztailaren 31 baino lehenago helaraziko diote.

### III. KAPITULUA

#### BAIMENDUTAKO HEZIKETA ZIKLOAK IRAKASTEKO DIRU-LAGUNTZA

12. artikulua.– Diru-baliabideak.

Agindu honen xedea betetzeko 2014-2015 ikasturtean erabiliko diren diru-baliabideak 747.740 euro izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

Zenbateko hori areagotu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean beste laguntza-programa batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da eta aipatutakoaren berri eman beharko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

### 13. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak.

1.– Diru-laguntza eskatzen duen ikastetxeak, era berean, heziketa-ziklo berak 2014-2015 ikas-turterako eskaintza partzialean irakasteko baimena eskatu behar izango du aurretiaz.

2.– Deialdi honen bidez ezin izango dute diru-laguntzarik lortu gutxienez 12 ikasle ez dituzten taldeek.

3.– Heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean diruz lagunduz gero, deialdi honen bidez diruz lagundutako prestakuntza-ekintzek guztiz doakoak izan beharko dute parte-hartzaileentzat.

4.– Deialdi honen bidez lortzen den diru-laguntza bateraezina da beste erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako emandako beste edozein diru-laguntzarekin.

5.– Erakunde eskatzailea diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor edo administrazio-arloko zigorrik ez dauka, eta ez dago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen lege-debekuen eraginpean, beren beregi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuen eraginpean.

6.– Diru-laguntza eskatzen duen erakundeak egunean egon beharko du zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan.

Betebehar hau organo kudeatzaileak behar beste aldiz egiaztatuko du; horretarako ez du erakunde eskatzaileen baimenik behar izango, beti ere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

7.– Agindu honetan araututako diru-laguntzen eta laguntzen emakida eta, hala badagokio, ordainketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta honen erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasita dauden eta oraindik bideratzen ari diren itzulera-edo zigor-prozedura guztiak amaitzearen baldintzapean geratuko da.

### 14. artikulua.– Diru-laguntza emateko prozedura.

1.– Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta diru-laguntza eskatu duten baimendutako eskaera guztien arteko lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da diru-laguntza ematea.

2.– Aurreko puntuan ezarritako baremoaren arabera puntuazio altuena lortzen duten eskaerak diruz lagunduko dira, eskuragarri dauden aurrekontu-kredituak edo horiek eguneratzearen ondoriozkoak agortu arte.

3.– Eskaerak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

a) Aurkeztutako eskaintzaren egokitasuna eskaera egin duen ikastetxearen eraginpeko esparruan dauden beharrekiko. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Irizpidearen banakapena:

Laneratze handiko arloa da: 0 edo 5 edo 10 puntu.

Ikastetxeak etengabeko eta lanerako prestakuntza ematen esperientzia egiaztatua du: 0 edo 5 edo 10 puntu.

b) Proposatutako eskaintza osagarria izatea ikastetxe eskatzailearen eraginpeko esparruan dauden edo beste ikastetxe batzuek proposatu dituzten eskaintzekin. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Irizpidearen banakapena:

Ikastetxeak, aurreko deialdietan, heziketa-ziklo bateko titulua lortzeko dagoeneko irakatsitako moduluen eskaintza osatzen da: ez/bai: 0 edo 10 puntu.

Ikastetxeak prestakuntza-plan bat aurkeztuko du, eskatutako eskaintzak etorkizuneko beste batzuekin duen lotura eta denboran izango duen garapena (egutegia) azalduta: ez/bai: 0 edo 10 puntu.

c) Eskaintzak hautagai diren ikasleen beharrekin duen lotura. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Irizpidearen banakapena: litezkeen ikasleen kopurua balioesteko, dagoen eskariaren inguruko datu errealak kontuan hartuko dira.

20 baino gehiago: 20 puntu.

16 eta 20en artean: 15 puntu.

13 eta 15en artean: 10 puntu.

10 eta 12en artean: 5 puntu.

10 baino gutxiago: 0 puntu.

d) Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoaren beharrekin duen lotura. Gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Irizpidearen banakapena:

Zikloa arlo industrial batean dago: 20 puntu.

Zikloa ez dago arlo industrial batean: 0 puntu.

Hauek dira arlo industrietatik hartzen diren lanbide arloak:

- elektrizitatea eta elektronika.
- energia eta ura.
- fabrikazio mekanikoa.
- instalazioak eta mantenimendua.
- garraioa eta ibilgailuen mantenimendua.

e) Eskaintzaren bideragarritasuna ikastetxearen funtzionamenduaren ikuspegitik. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Irizpidearen banakapena:

Ikastetxeak eskatutako modulua irakasteko aurkeztutako denbora-plangintza aurkezten du: ez/ez oso zehatza/osozehatza: 0 edo 3 edo 5 puntu.

Aurreko eskaintza partzial batekin jarraitzen duen ikastetxeei dagokienez:

Heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean emateko taldeak ondo finkatuta daude: ez/erdi-maila/goi-maila: 0 edo 3 edo 5 puntu.

Ikastetxe lehen aldiz aurkezten bada:

Eskaintzak dimentsio zehatza duen eta horrek eskatu diren modulu guztiak finkatzea ziurtatzen du: ez/bai: 0 edo 3 puntu.

f) Eskatutako aurrekontuaren egokitzapena agindu honen hurrengo artikuluan ezarritakoarekiko. Gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Irizpidearen banakapena:

15 artikuluan ezarritako aurrekontua bezalakoa: 5 puntu.

15 artikuluan ezarritako aurrekontua baino gutxiago: % 5 gutxiago bakoitzean, puntu bat gehiago.

15 artikuluan ezarritako aurrekontua baino gehiago: % 5 gehiago bakoitzean, puntu bat gutxiago.

4.– Berdinketarik egonez gero, ikastetxeak eskaintza hori ematen aurreko hiru ikasturteetan egindako ibilbidea kontuan hartuko da, eta datu hauek ekartzea balioetsiko da: baimendutako taldeen kopurua, finkatutako taldeen kopurua, matrikulatutako ikasleak, uzteak, probara aurkeztutakoak, hura gainditu dutenak.

15. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1.– 2014-2015 ikasturtean eskaintza partzialean irakatsiko diren heziketa zikloen finantzaketa, baimendutako moduluen iraupen finkoaren arabera zehaztuko da.

2.– Lanbide Heziketako heziketa zikloen lanbide-moduluak 2014-2015 ikasturtean irakasteko ezarritako gehieneko modulu ekonomikoak honako hauek dira:

- Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloen lanbide-moduluak: 98 euro/ordu.
- Soldadura eta galdaragintzako erdi-mailako heziketa-zikloaren Giro naturaleko soldadurako eta Babes-giroko soldadurako lanbide-moduluak: 116,50 euro/ordu.

3.– Honako gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

- Langile-gastuak.
- Funtzionamendu-gastuak.

Funtzionamendu-gastuek ezingo dute gainditu finantzatutako gastuen % 30.

Halaber, funtzionamendu-gastu honetatik, bai zuzendaritza, koordinazio, kudeaketa eta administrazio-gastuek bai lokalen alokairuarenek ezingo dute gainditu biok batera funtzionamendu-gastuen herena.

4.– Emandako diru-laguntza ezingo da izan, inolaz ere, irakaskuntza horiek irakastetik sortutako eta behar bezala justifikatutako aurrekontu-defizita baino handiagoa.

16. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntzaren ordainketa epe bitan egingo da.

Lehenengoa, jaso beharreko diru guztiaren % 60, 18.a) artikuluan aipatutako epea igarotakoan egingo da, diru-laguntzari uko egin ez bazaio.

Eta geratzen den zenbatekoaren bigarren ordainketa, berriz, artikulua beraren e) eta d) ataletan adierazitako agiriak aurkeztu eta horiek ebaluatu ondoren.



17. artikulua.– Diru-laguntza aldatu, berrikusi eta itzultzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok ebazpena aldatzea ekarriko du berekin, baldin eta diru-laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesa eskatzeko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Errege Dekretu Legegileak onartutako testu bategina) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Tituluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3.– Aipatutako araudian jasotako gorabeheraren bat eta, bereziki, ondoren aipatzen diren gorabehera hauetakoren bat gertatuz gero, ikastetxeek jasotako diru-laguntza eta sortutako legezko interesak itzuli beharko dituzte:

a) Burutzen den proiektuaren eta ikastetxe onuradunek aurkeztutako azken txostenaren jarraitzearen eskaintza onartzerakoan, hasierako proiektuan aurreikusitako gutxieneko helburuak ez dituztela lortzen ondorioztatzea.

b) Agindu honetan eta agindua garatuko duten ebazpenetan xedatutakoa nola edo hala ez betetzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako diru-laguntzen onuradunek dituzten eginbeharrak ez betetzea.

4.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (1992ko otsailaren 17ko EHAA) araututa dago itzultzeko prozedura.

18. artikulua.– Ikastetxeen betebeharrak.

Diruz lagundutako ikastetxeek, baimendutako ikastetxeetarako ezarritako betebeharez gain, ondorengo hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, deialdiaren ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek esanbidezko ukapena egiten ez badiote eta idatziz horren berri ematen ez badute, diru-laguntza onartzen dutela ulertuko da.

Heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean irakasteko baimenduta dauden, baina, horiek irakasteko diru-laguntza eskaturik, hura lortu ez duten ikastetxeek idatziz berretsi beharko dute, hamabost egun naturaleko epean, Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren aurrean, baimendutako moduluak irakasteko asmoari eusten diotela. Bestela, baimenari uko egin diotela ulertuko da.

b) Diru-laguntza, eman den xede jakinerako erabiltzea.

c) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraztea eskatzen dieten informazioa, deialdi honen kargurako jasotako diru-laguntzei buruzkoa.

d) Lanbide Heziketako zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimendutako ikastetxeek dituzten baldintza guztiak ere betetzea; hain zuzen ere, agindu honen 13. artikuluan adierazitakoak.

e) Txosten ekonomikoa eta egindako gastuaren laburpena aurkeztu beharko da, ondorengo agiriak erantsita: gastu guztien zerrenda exhaustiboa, kapituluak eta kontzeptuak kontuan hartuta ordenatuta, fakturen zerrenda kronologikoki antolatuta eta beste edozein frogagiri, betiere legez

2014ko ekainaren 11, asteazkena

onartuta badaude eta emandako diru-laguntzari badagozkio; guztia 2015ko uztailaren 31 baino lehen. Txosten hau «Txosten ekonomikoa» inprimaki normalizatuan ezarritako eskemaren araber egin eta «Nire Kudeaketak» bide elektronikoz bidez bidali egin beharko da. Inprimaki hau eskuratzeko, jo euskadi.net helbide elektronikora.

Heziketa eta Ikaskuntza Zuzendaritzak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko ditu diruz lagundutako jardueraren ziurtagiriak, hain zuzen ere egoki irizten dituenak, diruaren kopuru osoak, diru-laguntzen kopuruak zuzenak direla eta diru-laguntzak eurak ondo erabili direla ziurtatzeko.

Ikastetxe onuradunek jasotako funtsen erabileraren egiazttagiriak gorde beharko dituzte, egiaztatu eta kontrola daitezkeen bitartean.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek aurreikusi ez duenari dagokionez, 30/1992 Legea hartuko da aintzat, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua zati batean. Halaber, diru-laguntza publikoak arautzen dituen legedia.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, hilabete biko epean. Epe biok agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 3a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

3.6.b) artikuluan adierazten den justifikazio-memorian, honako alderdiak jaso beharko dira gutxienez:

1.– Eskaintza partzialean irakasteko eskatu den heziketa-zikloak ikastetxean izan duen bila-kaera (ziklo horrek aurreko ikasturteetan izan duen ibilbidea; ziklo hori ikasten ibili diren ikasleak; zikloa ikastetxeko eskaintza osotik desagertzeko arrazoiak; eskaintza partzialean eman nahi izateko arrazoiak...).

2.– Eskaintza partziala nola egokitzen den, eskaera egin duen ikastetxearen eraginpeko zonaldeko ekoizpen-sistemara (lanpostu berrien aurreikuspena, beharren azterketa, alor jakin horretako enpresa kopurua eta izan dezakeen eskaeraren aurreikuspena...).

3.– Eskaintza horrek nolaosatzen duen dagoeneko zonaldean dagoen eskaintza edota zonalde bereko beste ikastetxe batzuek ezarri nahi duten eskaintza (antzeko eskaintzarik eza, beste ikastetxe batzuen eskaintzarekiko osagarria izatea...).

4.– Eskaintzaren erlazioa eta horrekin batera ikasle eskatzaileen beharrak (eskari potentzialaren analisia, eskaintza partzial honen barruan ikasketak egingo duten ikasleen zerrenda, aurreko kurtsotan eskaintza partzial moduan eskatutako zikloa egin duten ikasleak...).